



TXOSTEN METEOROLOGIKOA – 2019KO MAIATZA

Maiatza, prezipitazioari dagokionez, lehorra eta ohikoaren artekoa izan zen, nahiz eta leku batzuetatik besteetara alde handia izan. Tenperaturari dagokionez, oso hotza izan zen; izan ere, mende honetako bigarren maiatzik hotzena da, 2013koaren ondoren. Gainera, hilaren 6an, EAEko barnealdeko estazioetan maiatzean ordura arteko tenperaturarik baxuenak neurtu ziren. Muturreko fenomenoei buruzko abisu gutxi igorri ziren, hiru besterik ez. Azpimarragarria da hilaren 18an eta 19an pilatu zen prezipitazioa; uholde txiki batzuk eta lurjausi batzuk izan ziren Donostia-Beterri eta Gipuzkoako Bidasoa eskualdeetan.

Prezipitazioa

Maiatza lehorra eta ohikoaren artekoa izan zen, Gipuzkoa ipar-ekialdean izan ezik, han oso hezea izan zen. Prezipitazioaren banaketa espaziala oso desberdina izan zen EAEn. Ohi bezala, maximoak Gipuzkoa ipar-ekialdean izan ziren, Nafarroako mugatik (Eskas 432.1 mm, Añarbe 320.5 mm, Ameraun 252.7 mm) kostalderainoko tartean (Oiartzun 239.7 mm, Miramon 193.4 mm, Lasarte 164.1 mm). Bizkaiko kostaldean bigarren mailako maximoak izan ziren (Muxika 134.2 mm, Bermeo 107.1 mm), eta baita isurialdeen banalerro inguruan ere (Urkiola 136.2 mm, Otxandio 136.1 mm, Arrasate 131.6 mm), Zegama 118.1 mm). Baliorik baxuenak Arabako Errioxan hasi eta Enkarerrietara eta Bilbo Handiraino zabaltzen den zonalde zabalean neurtu ziren (Tobillas 24.3 mm, Moreda 27.2 mm, Espejo 28.6 mm, Arkauti 46.8 mm, Balmaseda 58.2 mm, Galindo 60.8 mm).

Aurreko datuekin bat eginez, euri-egun kopurua ere oso ezberdina izan zen. Kostaldean 12 eta 15 artekoa, ohi baino egunen bat gehiago. Arabako Lautadan 10, batezbesteko balioa. Arabako Errioxan, aldiz, 5 besterik ez, hots, espero zitekeenaren ia erdia.

Gertakariei dagokionez, bi nabarmendu behar dira: bat hilaren 16an gauean hasi eta hilaren 17an eguerdira bitartekoa eta, bestea, hilaren 18ko gauean hasi eta hilaren 19ko eguerdira bitartekoa.

Hilaren 16an, Iberiar penintsulan zegoen depresio bati loturiko fronte okluito batek eragin zigun, eta geldikor geratu zen EAE parean hilaren 17ko goizeko lehen orduak arte. Goi-geruzetako aska batek ezegonkortasuna eragiten zuen. Zaparradak sarri bota zituen eta nahiz eta handiak ez izan (9.5 mm/h Herreran hilaren 16an gauean, 12.5 mm/h Bernan hilaren 17an eguerdi inguruan) 24 orduan pilatutako prezipitazio ugaria edo oso ugaria izan zen. Gipuzkoa ipar-ekialdean 60 mm baino gehiago pilatu ziren (Eskasen 70.9 mm hilaren 16an, 18etatik UTC hilaren 17an 18etara UTC bitartean).



Bigarren gertakaria garrantzitsuagoa izan zen. Goi-geruzetan askatutako depresio bat zegoen EAEn ipar-ekialdean eta fronte okluidu bat EAE parean. Hilaren 18an gauean eta hilaren 19an, egunaren lehen partean, prezipitazio iraunkorra izan zen eta pilatutako prezipitazioa oso ugaria ia kantauri isurialde osoan. Prezipitazioaren iraunkortasunaren ondorioz, une batzuetan intentsitatea handia izan zen, bai hilaren 18an azken orduetan (17.4 mm/h Eskasen, 15.3 mm/h Oiartzunen) eta baita hilaren 19an goizean goiz (berriro ere Oiartzunen, 18.3 mm/h, eta Eskasen, 17.7 mm/h). Gipuzkoa ipar-ekialdean 24 orduan 100 mm baino gehiago pilatu ziren (Eskas, 162.2 mm; Añarbe, 129.9 mm; Oiartzun, 127.7 mm; Miramon 103.7 mm). Euritearen ondorioz Urumea, Oiartzun eta Bidasoako arroetan ur emariak gora egin zuen eta estazioetan maila laranja gainditu zen. Euriaren intentsitateak uholde txikiak eta lurjausi batzuk eragin zituen. Gainerako tokietan ez zen gertakaririk izan, nahiz eta prezipitazio oso ugaria izan.

Gertakari hartan elurte oparoa bota zuen Belaguako iraupen-eskiko estazioan (1600 m inguruan).

Taula 1: Azken urteetan maiatzean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010
Deusto	60.8*	66.5	51.8	42.8	52.6	43.1	105.2	56.3	49.9	56.4
Lasarte	164.1	114.3	70.7	83.8	75.6	102.4	222.2	109.2	63.1	139.2
Arrasate	131.6	81.3	52.5	59.7	100.7	102.9	163.4	91.2	72.9	137.9
Abetxuko	46.8	53.2	41.7	32.4	16.2	35.0	66.3	46.7	41.0	75.1
Párganos	21.5	47.5	31.5	22.1	2.9	25.1	31.0	40.7	28.6	42.2

* Galindo estazioaren datua

Temperatura

Temperaturari dagokionez maiatza oso hotza izan zen EAE osoan, Arabako Errioxan izan ezik, han hotza. Kostaldean batez besteko temperatura 13.5-14.5 °C artekoa izan zen, aldiz Arabako Lautadan ez ziren 12 °C-ra iritsi. 1981-2010 denboraldi klimatologikoaren batezbestekoarekin konparatuz diferentzia negatiboa da, -1.3 °C ingurukoa EAE osorako. Azken urteekin alderatuz, XXI. mendeko bigarren maiatzik hotzen da, 2013koaren atzetik.

Egun-hotzen nagusitasuna erabatekoa izan zen; egun-beroren bat edo beste soilik tartekatzen egun-hotzen artean.

Izozte berantiarak gertatu ziren, eta ez dira izaten oso ohikoak maiatzean (eta hori, izotza egitetik gertu ibili ziren egunak zenbatu gabe). Adibidez Vitoria-Gasteizen bi egunetan egin zuen izotza eta maiatzean klimatologia batezbestekoa 0.4 egun da.



Azpimarragarriak dira hilaren 6an Mediterraneo isurialdeko hainbat lekutan izan ziren izozteak. Egun hartan inoiz maiatzean EAeko barnealdeko estazioetan neurtu diren tenperaturarik baxuenak neurtu ziren, eta Araba erdialdeko zenbait lekutan izotz handia bota zuen (Iturrieta, -4.6 °C, Salvatierra -3.5 °C, Trebiño -3.4 °C, Pagoeta -3.3 °C, Albaina -3.2 °C, Navarrete -3.2 °C). Garai horretan izotza egitea ezohikoa den lekuetan ere egin zuen izotza, adibidez Arabako Errioxan (Páganos 0 °C) edo kantauri isurialdean (Berastegi -0.8 °C, Balmaseda -0.6 °C, Arrasate -0.1 °C, Saratxo -0.1 °C).

Egunik beroenak hilaren amaieran izan ziren, Bizkaiko golkoan antizikloia kokatu zenean eta aire berozko mihi bat Iberiar penintsulan. Hasieran, goizean, haizea aldakor ibili zen; gero, eguerdian haizea iparraldetik finkatu eta indartu egin zen. Horren ondorioz, tenperatura balio suabeak izan genituen. Hilaren 31n antizikloia kontinentera sartu zen; orduan haizeak hegoaldera egin zuen eta hilabeteko tenperaturarik altuenak neurtu ziren. Barnealdeko estazio askotan gainditu ziren 30 °C-ak: Saratxoko estazioan 32.5 °C-ra iritsi ziren eta Abetxukon 30.9 °C-ra. Egun haietan anplitude termikoa handia izan zen, izan ere barnealdean tenperatura minimoak 10 °C-tik behera jaitsi ziren. Hala ere, tenperatura maximo horiek ez dira oso altuak maiatzerako. Gainera, 30 °C-ak gainditu ziren hileko egun bakarra izan zen.

Maiatza oso hotza izan arren, intsolazioa ohi baino %10-15 handiagoa izan zen.

Taula 2: Maiatzean, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan

	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010
Deusto	14.7	14.6	17.2	16.7	16.5	14.9	13.0	17.1	17.4	14.9
Lasarte	13.2	14.3	16.8	15.5	15.5	14.1	12.0	16.4	16.9	14.0
Arrasate	12.0	12.8	16.4	14.0	14.5	12.7	10.2	15.0	15.6	13.1
Abetxuko	11.9	12.3	15.8	13.6	14.5	12.7	10.1	14.4	15.0	12.1
Páganos	13.0	13.5	17.1	14.1	15.9	13.5	10.6	15.4	16.3	12.7

Haizea

Iparraldeko haizea izan zen nagusi, batez ere laugarren koadrantekoa. Gutxiagotan nagusitu zen lehenengo koadranteko haizea, batez eguraldia egonkorra izan zen egunetan; egun haietan haize ahula eta aldakorrarekin tartekatuta zen egunean zehar. Zenbait egunetan Bizkaiko golkotik depresioak pasa ziren eta mendebal/hego-mendebaldeko haizea ibili zen; orduan neurtu ziren hilabeteko boladarik indartsuenak.

Haize-boladek 100 km/h-ko abiadura oso gutxitan gainditu zuten, kasu gehietan hego-mendebaldeko haize-boladak izan ziren. Hilaren 7an, gauean, Orduñako estazioan 100.5 km/h bolada izan zen, hurrengo egunean haizeguneak diren hiru estaziotan (Orduña, 109.7 km/h; Herrera, 108.6 km/h; Matxitxako, 101.3 km/h). Egun hartan mendebal/hego-mendebaldeko haize-boladek Arabako



haizeguneak ez diren zenbait tokitan 80 km/h-ko abiadura gainditu zuten (Trebiño 89.6 km/h; Párganos eta Gasteiz, 82.9 km/h; Ilarduia, 82.2).

Haizeguneetan ipar-mendebaldeko haize-bolada oso gogorrak ere izan ziren. Ipar-ekialdeko haizea ibili zenean, ordea, bolada gogorrak baino ez. Hilaren 17an, zaparrada batzuekin batera, mendebal/ipar-mendebaldeko haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten Cerrojan (106.9 km/h).

Analisia

Hilaren 1a eta 2a

Hilabetearen hasieran egoera egonkorra izan zen, Kantauri Itsasoan ziri moduan zabaldu zen Azoreetako antizikloiari esker.

Hilaren 3tik 6ra

Hilaren 3an presio altuak mendebaldera mugitu ziren eta fronte batek Bizkaiko golkoa zeharkatu zuen. Hilaren 4an 500 hPa-eko mailan blokeo indartsua sortu zen Sole Handian, Islandiako iparraldetik Kantauri itsasoraino zabaldua zegoena. Blokeo horren isla lurrazalean presio altuen eremu handi bat izan zen, zeinaren erdigunea Islandia hego-ekialdean zegoen, 1034 hPa-eko presioarekin. Frontea pasa ostean, aire-masa hotz bat zabaldu zen gurean eta hilaren 5ean, egunaren lehenengo partean, 850 hPa-eko mailan airearen temperatura -2 °C-ra jaitsi zen. Hurrengo egunean Mediterraneo isurialdeko hainbat tokitan izotza egin zuen.

Hilaren 7tik 10era

Hilaren 7tik aurrera zirkulazio zonal indartsua ezarri zen eta fronteak eta depresio txikiak bata bestearen atzetik pasa ziren. Mendebaldeko edo hego-mendebaldeko haizea ibili zen gurean; ondorioz, hilabeteko haize-boladarik zakarrenak orduan neurtu ziren (hilaren 8an). Itsasoa ere zakartu egin zen (hilaren 9an).

Hilaren 11a

Egonkortasuna areagotu egin zen, Britainiar uharteetan gailur bat eratu zelako 500 hPa-eko mailan eta antizikloi bat lurrazalean Irlanda mendebaldean. Aire-masa hotz bat zabaldu zen gurean eta 850 hPa-eko mailan airearen temperatura 11-12 °C-tik 4-5 °C ingurura jaitsi zen.

Hilaren 12tik 15era

Hilaren 12tik aurrera presio altuak gailendu ziren. 500 hPa-eko mailan blokeoa sortu zen Afrika iparraldean eta Iberiar penintsulan. Gero, blokeo hura omega itxurako blokeo txikia bilakatu zen, zeina hilaren 13tik 15era Iberiar penintsulatik Britainiar uharteetara zabaldu zen. Lurrazalean presio altuen erdigunea Ipar itsasoan kokatu zen, hilaren 13an 1042 hPa-eko presio maximoarekin. Hilaren 14an eta 15ean 850 hPa-eko mailan airearen temperatura 14-15 °C ingurukoa izan zen.



Hilaren 16tik 19ra

Hilaren 16tik aurrera presio altuek ahultzera egin zuten. Lurrazalean fronte okluito bat loturik zeraman beste aska bat hurbildu zen Atlantikotik. Hilaren 17an Frantzia eta Herbehereetan presio baxuen eremu bat sortu zen. Hilaren 18an beste fronte okluito bat igaro zen Bizkaiko golkotik, astiro, eta Pirinioetan goi-geruzan depresio txiki bat sortu zen, gero ekialdera aldendu zena.

Hilaren 20tik 23ra

Hilaren 20an egonkortasuna handitu egin zen. Hilaren 21ean presio altuak Bizkaiko golkotik Irlandaraino zabaldu ziren. Hurrengo egunetan aintzira barometriko batean egon ginen eta arratsaldean Iberiar penintsularen hegoaldean eta erdialdean bero-depresio bat sortu zen. 850 hPa-eko mailan airearen tenperatura 17 °C-ra igo zen Iberiar penintsularen erdialdean eta hegoaldean, 12 °C-ra gurean. Hilaren 23an mendebaldetik fronte txiki bat sartu zen, 500 hPa-eko mailan aire hotzez beteriko aska txiki batekin batera.

Hilaren 24tik 29ra

500 hPa-eko mailan gailur bat izan genuen, lurrazalean, berriz, Azoreetako antizikloia. Goi-geruzako gailurra iparraldera zabaldu zen eta bere adar hotza Bizkaiko golkoan sartu zen; ezegonkortasun eremu txiki bat Mediterraneora mugitu zen. Hurrengo egunetan ezegonkortasuna ekialdera mugitu zen eta indartu egin zen. Lurrazaleko antizikloia ia ez zen mugitu egun haietan.

Hilaren 30a eta 31a

Azore uharteetan zegoen gailurra ekialdera mugitu zen eta maila guztietan adbkezio beroa izan genuen; hilaren 31an 850 hPa-eko mailan airearen tenperatura 16-18 °C ingurura igo zen. Hilaren 30ean lurrazalean presio altuak Bizkaiko golkoan zabaldu ziren, hurrengo egunean Alpeetan, eta horrek gurean hego-haizea indartu zuen.






Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2019ko maiatzeko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Temp. max. °C	Temp. max.abs. °C	Temp. min °C	Temp. min.abs. °C	Izotz-egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri-egunak.
Deusto	14.7	18.3	29.2	11.0	6.1	0	60.8	10.0	12
Lasarte	13.2	17.2	26.0	9.1	2.2	0	164.1	48.7	15
Arrasate	12.0	18.1	29.8	6.5	-0.1	1	131.6	45.3	15
Abetxuko	11.9	19.2	30.9	5.2	-1,8	2	46.8	15.3	10
Páganos	13.0	19.4	29.1	6.7	0.0	1	31.1	9.6	5



Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak



Pilatutako prezipitazioa

 Temperatura minimoa


 Batez besteko temperatura

 Temperatura maximoa




Prezipitazioaren jokaera


Behatutako prezipitazioa
Precipitación observada




Prezipitazio normala
Precipitación normala



Prezipitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normala



Prezipitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normala





Muturreko egoerak

Maiatzean 3 abisu hori igorri ziren: 1 prezipitazio handiagatik, 1 prezipitazio iraunkorragatik eta 1 olatuengatik nabigaziorako.

- Europa mendebaldean aire-masa hotz bat zabaldua zegoen eta hilaren 5ean Kantauri itsasoaren ekialdean 850 hPa-eko mailan airearen tenperatura 0 °C ingurura jaitsi zen. Hilaren 6an, goizaldean, zerua oskarbi edo hodei gutxirekin geratu zen eta lurrazaleko tenperaturak ere behera egin zuen. Mediterraneo isurialdeko hainbat tokitan izotza egin zuen eta EAEko barnealdeko zenbait estaziotan maiatzean inoiz neurturiko tenperaturarik baxuenak neurtu ziren. Araba erdialdeko zenbait lekutan izotz handia egin zuen. Garai horretan izotza egitea ezohikoa den lekuetan ere egin zuen izotza, adibidez Arabako Errioxan eta kantauri isurialdean.

Estazioa	Hilak 6 Tmin (°C)
Iturrieta	-4.6
Roitegi	-3.5
Salvatierra	-3.5
Trebiño	-3.4
Pagoeta	-3.3
Navarrete	-3.2
Albaina	-3.2
Abetxuko	-1.8

- Hilaren 8an depresio batek Bizkaiko golkoa zeharkatu zuen eta hego-mendebaldeko haizea indartsu ibili zen barnealdeko haizeguneetan eta haizeguneak ez diren tokietan, batez ere egunaren erdiko orduetan eta Araban. Goizaldean kostaldean ere zakar ibili zen haizea, baina goizean goiz mendebal/ipar-mendebaldera aldatu zen eta orduan indarra galdu zuen.

Estazioa	Hilak 8 km/h	Ordua UTC
Orduña	109.7	04:50
Herrera	108.6	15:50
Matxixako	101.3	01:20
Trebiño	89.6	14:40
Párganos	82.9	12:30
Gasteiz	82.9	11:40
Ilarduia	82.2	15:10



- Bizkaiko golkotik igaro zen depresio batek altxatutako hondoko itsasoa hilaren 9an heldu zen kostaldera, egunaren hasieran. Hilaren 8an olatuen altuera adierazgarria igo egin zen eta azken orduetan 1.5 metro ingurukoa izan zen (Pasaiaiko Portua, 1.46 m). Hilaren 9an, goizaldean, gora egiten jarraitu zuen, azkarrago gainera, 3.5 m-ak gainditu arte (Pasaiaiko Portua, 4.22 metro 04:00etan UTC) eta horrela jarraitu zuen goizera arte. Goizean jaitsi eta egunaren amaieran 1.5 m ingurukoa izan zen berriro ere.

Osteguna, hilak 9: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 12etara ordu lokala.

- Hilaren 16an Iberiar penintsulan depresio bat sakondu zen eta egunaren amaieran ekialdean kokatu zen. Hilaren 16an, azken orduetan, eta hilaren 17an, egunaren hasieran, depresio horri loturiko fronte okluitua Kantauri itsasoaren ekialdean kokatu zen. Goi-geruzan Iberiar penintsularen iparraldean aska bat zabaldu zen eta ezegonkortasuna handia izan zen egun horietan. Hilaren 16an, gauean, zaparrada txiki-ertainak bota zituen (ordubetean 9 mm ingurukoak izan ziren handienak). Hilaren 17an, egunaren lehenengo partean, zaparrada mardulak botatzen jarraitu zuen, handiak izatera ailegatu ez ziren arren (Berna, 12.5 mm ordubetean, Eskas 12.2 mm ordubetean, Aixola, 10.2 mm ordubetean) eta han-hemenka ekaitzak jo zuen, batez ere ekialdean. Zaparradekin batera, mendebal/ipar-mendebaldeko haize-bolada oso gogorrak neurtu ziren (hilaren 17an, egunaren hasieran, Cerroja, 106.9 km/h). Hilaren 17an, arratsalde-gau partean, atertzera egin zuen. Prezipitazio handia egin ez bazuen ere, zenbait lekutan 24 orduan 60 mm baino gehiago pilatu ziren.

Estazioa	Hilak 16 mm/h
Herrera	9.5
Otxandio	9.3
Gorbea	9

Estazioa	Hilak 17 mm/h
Berna	12.5
Eskas	12.2
Aixola	10.2

Estazioa	Hilak 17 eta 18 mm 24 orduan (18etatik UTC 18etara UTC)
Eskas	70.9
Arrasate	58.5
Urkiola	57.7
San Prudentzio	57.4
Otxandio	55.9



Osteguna, hilak 16: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 21etatik 24etara ordu lokala.
Ostirala, hilak 17: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 00etatik 12etara ordu lokala.

- Hilaren 18an, azken orduetan, eta hilaren 19ko lehenengo partean goigeruzan askatutako depresio bat lurraldearen ipar-ekialdean kokatu zen, baita fronte okluitu iraunkor bat ere. Prezipitazio iraunkorra egin zuen eta kantauri isurialdeko zenbait lekutan oso ugaria izan zen euria, batez ere Gipuzkoa ekialdean (Donostialdean eta Bidasoa Beherean) eta Bizkaiko ekialdeko zenbait lekutan (Busturialdean). Pilatutako prezipitazioaren ondorioz, Bidasoa arroko Jaizubiako ubideak gainezka egin zuen. Horrez gain, egindako prezipitazio handiagatik lehen aipaturiko Gipuzkoako eskualde horietan uholde txikiak eta luiziak jazo ziren, eta larrialdiei aurre egiteko zerbitzuek esku hartu behar izan zuten.

Estazioa	Hilak 18 mm/h
Eskas	17.4
Oiartzun	15.3
Añarbe	13.7

Estazioa	Hilak 19 mm/h
Oiartzun	18.3
Eskas	17.7
Añarbe	13.3

Estazioa	Hilak 18 eta 19 mm 24 orduan (13etatik UTC 13etara UTC)
Eskas	162.2
Añarbe	129.9
Oiartzun	127.7
Miramón	103.7
Amerauñ	96.8
Lasarte	75.6
Muxika	51.6

Larunbata, hilak 18: Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Bizkaian eta Gipuzkoan 15etatik 24etara ordu lokala.
Igandea, hilak 19: Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik 15etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologi gidan aurki daiteke:

http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeke daude.